


# Mikro-ipuinak 2010

Asisko · Aaron Arbizu Alberto · Oihana Amorós Abrego  
Paulo Ramos Zumalde · Mikel Castillo Garziarena · Amaia Sanchez  
Irantzu Garzaron Ruperez · Nahia Mitxelena Vaquero  
Bidane Leon Balentzia · Olatz Ruiz de Galarreta Gomez  
Cristina Añazco Carrión · Munia El Marhoum Iruretagoiena  
Daniel Ballesteros Goñi · Idoia Irazoki Bengoetxea ·  
Leize Los Arcos Garijo · Maialen Zabalza Zudaire · Uxue Perez Litago



 EUSIARA  
El Futuro Arcos

 PAMIELA  
organiza

# Mikro-ipuinak

*Iturmendi, 2010*



Azala:  
Lamia-Pamiela

Babeslea:



Gure eskerrik beroenak epaimahaikide lanetan  
aritu diren lagunei:

AINGERU EPALTZA, INMA ERREA,  
ANGEL ERRO eta TOÑO MURO



© EKE, 2011

© Pamiela argitalpen honengatik

© Argazkiak: Pamiela

Diseinua eta fotokonposizioa:

**Pamiela.** Agustindarren industrialdea/Soltxate

G kalea, B6 nabea. 31013 Iruña

Tel.: 948 32 65 35 • Faxa: 948 32 66 02

[pamiela@pamiela.com](mailto:pamiela@pamiela.com)

[www.pamiela.com](http://www.pamiela.com)

L.G.: Na-1.687/2011

ISBN: 978-84-7681-679-0

Nafarroan Ona Industria Gráfíca moldatu eta egina

Agustindarren industrialdea/Soltxate

F kalea, B6 nabea. 31013 Iruña

*Printed in Navarre*

## V. MIKRO-IPUIN LEHIAKETAREN EPAIMAHAIAREN AKTA

Mikro-Ipuin Lehiaketaren 2010eko edizioan Nafarroako zonalde guztietako ikastetxeek parte hartu dute. Orotara 1.675 lan bildu dira, horietatik 721 Lehen Hezkuntzakoak, eta 954, Bigarren Hezkuntzakoak.

Lehiaketara aurkeztutako lanen kopuruaz gain, epaimahaiak haien kalitatea azpimarratu nahi du. Izan ere, kalitate-maila oneko lan asko aurkeztu dira aurtengo ediziora, hala Lehen Hezkuntzan (nola DBHn. Horrekin batera, epaimahaiaren iritziz, aurkeztutako lanen beste ezaugarri bat aniztasuna izan da, halako eran non idazlanek gure gazteek darabiltzaten gai, kezka, amets eta literatur asmo askotarikoak islatzen baitituzte. Azkenik, agerian gelditu da, baita ere, irakasle askok hartutako konpromisoa eta egindako lana, haien ikasleen urratsak literatur sormenera bideratze aldera.

### **Saridunak:**

Ez da erraza izan epaimahaiaren lana, franko baitziren saridun izateko merezimenduak zituzten lanak. Sail bakoitzean bat baizik ezin hautatu, ordea, eta hauek izan dira sarituak:

**LEHEN HEZKUNTZA**n irabazle suertatu den lanari, *Koilara Hiltzailea* izenekoari, erakutsitako fantasia eta umorea, istorioa oso lerro gutxitan garatzeko manera eta haren barne-garapenaren koherentzia aitortu dizkio epaimahaiak, bai eta gauzak kontatzeko orduan irudiak baliatzeko trebezia ere.

Egilea: Aaron Arbizu Alberto, 12 urte (6. maila). Arrano Beltza Ikastetxea, Iturmendi.

Irabazleaz gain, epaimahiak beste hiru ipuin finalista ere hautatu zituen:

- *Harri kozkorra* ipuina. Egilea: Ohiana Amorós Abrego, 10 urte (5. maila). Ikastetxe Publikoa, Arantza.

- *Erlojuan* ipuina. Egilea: Mikel Castillo, 12 urte (6. maila). Labiaga Ikastola, Bera.

- *Dibertibasura* ipuina. Egilea: Paulo Ramos Zumalde, 11 urte (6. maila). Tantirumairu Ikastola, Lesaka.

**BIGARREN HEZKUNTZAN**, berriz, *Poltsikoetan* izeneko lana da irabazlea. Horren kasuan, erritmoa, hizkuntzaren erabilera minimalista, irudien sekuentziazioa eta transgresio batean txirikordatzen diren ekintza, pentsamendu, sentipen eta emozio kontraesankorren kateatze laburra bezain zehatza baloratu ditu epaimahaiak.

Egilea: Amaia Sanchez, 15 urte (3. maila). Paz de Ziganda Ikastola, Atarrabia.

Lehen Hezkuntzan bezala, epaimahaiak ere hiru lan finalistak ere aukeratu zituen:

- *Ondo lo egin* ipuina. Egilea: Nahia Mitxelena Vaquero, 13 urte (2. maila). Toki Ona Institutua, Bera.

- *Ane gaixoa* ipuina. Egilea: Irantzu Garzaron. Berriozarko Institutua.

- *Kolpeen mina bihotzean* ipuina. Egilea: Bidane Leon Balentzia, 15 urte (4. maila). San Fermin Ikastola. Iruña.

EKEren eta Pamielaren izenean, esker anitz aurtengo edizioan parte hartu dutenei, bai irakasle baita ikasleei ere.

*Iruñean, 2011ko urtarrilaren 24ean*

AINGERU EPALTZAK (idazlea); INMA ERREAK (idazle eta itzultzailea);

ANGEL ERROK (idazlea) eta TOÑO MUROK (irakasle eta ikertzailea)

# V. Mikro-ipuin lehiaketa 2010



## Asisko Urmeneta

Aaron Arbizu Alberto • Oihana Amorós Abrego  
Paulo Ramos Zumalde • Mikel Castillo Garziarena • Amaia Sanchez  
Irantzu Garzaron Ruperez • Nahia Mitxelena Vaquero  
Bidane Leon Balentzia





Askaria hartu dugu sukaldean: txokolate eta saltxitxoia.  
Bart, Murururekin 4 ginen etxen.  
Egun, Mururu partitu eta, 4 gara.  
Ñiñiko sortu berrik ez baitaki (oraino) fisika kuantikoaz.



ASISKO URMENETA



## Koilara hiltzailea

Bazen behin koilara gaizkile bat Flandrian bizi zena.

Flan guztiek kristoren beldurra zioten; bere izena entzuten zutenean dardarka hasten ziren. Flan bat harrapatzen zuenean, barrenak ateratzen zizkion errukirik gabe, oraindik bizirik zegoela. Modu latz honetan flan asko hil zituen, Poliziak atxilotu zuen arte. Berria Flandriako egunkari guztietan etorri zen.

AARON ARBIZU ALBERTO

*6.maila, Iturmendiko Arrano Beltza Ikastetxe Publikoa*

LHkoLEHEN SARIA

## Harri kozkorra

Hor nabila ni, maldan behera. Hau da nire emozioetako bat, ona gainera. Txarra izanen da gelditzea, pareta bat jo eta xehatzea. Mutiko horrek maldan behera bota ninduenean, ez zituen kontuan hartu nire emozioak.

Harri huts naizelakoan hartu nau, izango ditu nirekin negozioak.

OIHANA AMORÓS ABREGO

*5. maila, Arantzako Ikastetxe Publikoa*

LHko FINALISTA

## Dibertibasura

Kale kantoian nago, potolo burusoil bat heldu da niregana bere zakar poltsarekin. Gero eta hurbilago, gero eta hurbilago... tapa altxatu dit eta zas!!! Eskuak harrapatu dizkiot: jajajajajaja...

—Aaaaaaaaaaaaaa!!!!

Ziztu bizian atera da zakar poltsa lurrean utzita eskuari helduta.

Herenegun berriz, betaurrekodun mehar bat etorri zen, «bu» esan orduko arineketan atera zena, betaurrekoak ahaztuta. Kotxe batek zapaldu dizkio, gizajoa...

Orain xahar bat heldu da, honi sustorik ez diot eman-go bestela... Pastela...

Hemen nago asperturik deus egin gabe... baina itxaron, orain tipo dotore bat heldu da bere gorbatarekin... Zakar poltsa behatz puntarekin helduta, tapa altxatu du nolabait, eta gorbata harrapatu diot!!! Jejeje! Aurpegia gorri-gorri eginda joan da arnasarik hartu ahal izan gabe.

Jooooppppee!!! Orain bere bizkartzainek besoetan naramate.

PAULO RAMOS ZUMALDE

6. maila, *Lesakako Tantirumairu Ikastola*

LHko FINALISTA

## Erlojuan

Erlojuen istorioan orratzen arteko ezberdintasuna nabaria zen. Orduen orratzak inbidiaz begiratzen zion minutuenari: berak 12 ordutan egiten zuena, ordu bakar batean egiteko gai zen. Minutuen orratza jaun eta jabe sentitzen zen erlojuen munduan segundoen orratza iritsi zen arte.

MIKEL CASTILLO GARZIARENA  
*6. maila, Berako Labiaga Ikastola*  
LHko FINALISTA

## Poltsikoetan

Atea ireki eta eskuak praketara.  
Begien begirada bizkorra dendako apal guztietatik.  
Biriken arnas eta bihotzaren taupada bizkorrak.  
Kopetako izerdi hotzaren tantak aurpegitik irristatzen.  
Urduri, beldur.  
Baina hain polita da.  
Eskuak kanpora.  
Eskuak azkar praketara.  
Atea ireki.  
Atera.  
Atea itxi.  
Kanpoan, azkenean libre!!  
Birika lasaien arnasa, bihotzaren taupada mantsoak.  
Kulpabilitatea, erremordimendua.  
Eskuak kanpora eta pultsera bat eskuan.  
Begirada tristea, erruduna, nekatua.  
Baina hain polita...  
Eskuak praketan.  
Etxera.

AMAIA SANCHEZ

*3. maila, Paz de Ziganda Ikastola*

DBHko LEHEN SARIA

## Ane gaixoa

Baziren pinu eta gereziondo bi hosto. Zuhaitzak elkarrekin hasi zirenez, bi hostoak oso lagunak egin ziren. Txomin, gereziondo hostoa, Anerekin maiteminduta zegoen.

Udaberriko goiz eguzkitsu batean, Txominek bere sentimenduak aitortu zizkion pinu hostoari. Honek, harrituta, berak ere berdina sentitzen zuela erantzun zion. Oso udaberri zoriontsua bizi izan zuten, baita uda ere. Udazkena ailegatzean, Txomin gaixo-gaixorik jarri zen, bere kolore berdea galdu eta marroia eta ximurra jarri zen. Egun batean, hil eta zuhaitzetik erori zen. Ane gaixoak udazkenero galtzen zituen bere maitaleak.

IRANTZU GARZARON RUPEREZ  
*4. maila, Berriozarko Institutua*  
DBHko FINALISTA

## Ondo lo egin

«Kaixo, heriotza naiz. Nire izena ezaguna egingo zaizu, ezta? Noizbait ikusten banauzu, ez da oso seinale ona. Begira, gauza bat esan behar dizut. Bihar hil egingo zara. Arratsaldeko zortzietan, tiro bat joko dizute bihotz ondoan eta asko sufrituko duzu hil arte. Lasai, zure ondoan egongo naiz denbora guztian. Ondo lo egin...»

NAHIA MITXELENA VAQUERO  
*2. maila, Berako Toki Ona Institutua*  
DBHko FINALISTA

## Kolpeen mina bihotzean

Kolpe bat, gero beste bat.

Kolpeen milaka arrasto zure gorputzean, milioika zure bihotzean.

Tortura hutsa da, eta torturatzaila zure maitalea.

Itsu zaude, maitasun mingarri batean galduta, nor bihotza da zure gida, eta honek buruari kasurik ez.

Metalaren hozkada hotza sentitu duzu bihotzean, baina badakizu horrek ez zaituela inporta, gorago dauden eskuek baizik, beti maite izan dituzun eskuek.

Orduan ulertu duzu. Berak ez zaitu maite, beretzako nahi zaitu, intseguritateak sortutako sentimenduan galdu egin da.

Lehenengo aldiz, bere begiek benetako bihotza erakutsi dizute: hutsa.

Baina, beranduegi da orain. Jadanik lortu baitu nahi zuena.

Kolpe bat, gero... azkena

BIDANE LEON BALENTZIA

*4. maila, Iruñeko San Fermin Ikastola*

DBHko FINALISTA




# Aipamen bereziak



Olatz Ruiz de Galarreta Gomez  
Cristina Añazco Carrión • Munia El Marhoum Iruretagoiena  
Daniel Ballesteros Goñi • Idoia Irazoki Bengoetxea  
Leize Los Arcos Garijo • Maialen Zabalza Zudaire  
Uxue Perez Litago





## Nire etxeko atea

Nire etxean, etxe guztietan bezala, atea daude. Nirean ere beste etxetakoen berdintsu dira, bat izan ezik. Ate honek alde misteriotsu bat dauka. Ez galdetu zein, eta ez dakit ongi zergatik. Horia da, kolorea arraroa da baina ez da hori, erraldoia ere baita, uste dut hori ez dela ere. Agian bakarrik giltza batekin ireki ahal dela eta nire gurasoek ezkutatuta daukatela? Hori misteriotsua da, baina ez da guztia.

Uste dut arrazoi nagusia gurasoek ez nautela sartzen uzten dela. Asteak daramatzat giltza bilatzen atzo arte.

Gaur bakarrik nago, giltzarekin; zure ustez sartu beharko nintzen edo giltza bere tokian utzi?

OLATZ RUIZ DE GALARRETA GOMEZ  
*6.maila, Iruñeko Frantzisko Deuna Ikastetxe Publikoa*  
LHko AIPAMEN BEREZIA

## Ekvador

Zer datorkizu burura Ekvador hitza entzutean? Ziur aski Amerika kontinentearen erdigunean kokatua dagoen herria. Baita ere 0°an dagoen paraleloa. Zerbaiten erdira iristerakoan ere erabiltzen dugu hitz hau.

Niretzat ordea, Ekvador hitzak esanahi guztiz desberdina dauka: emozioa, bihotza, poza, tristura eta abar. Hau da sentimendua. NIRE ABERRIA.

CRISTINA AÑAZCO CARRIÓN

*6.maila, Lakuntzako Luis Fuentes Ikastetxe Publikoa*

LHko AIPAMEN BEREZIA

## «S»

Bazegoen sagarrondo bat. Sagarrondo horrek sagar oso samurrak zituen. Behinola sagarrondoak sagar samurrenari zera esan zion:

—Sagartxo, nire senak dio sagarrondoaren sagarrik samurrena zarela.

—Nire aburuz, ama, Sagarrondoaren sagarrik samurrena Sara da, sasien ondoko sagarra.

—So egin horri! Urteko sasoi honetan sagarrak biltzen dituen sagar biltzailea dator saskiarekin! Ongi segi seme!

—Agur, sagarrondo ama!

MUNIA EL MARHOUM IRURETAGOIENA  
*6.maila, Lakuntzako Luis Fuentes Ikastetxe Publikoa*  
LHko AIPAMEN BEREZIA

# Bang!!

Dena Bang batekin hasi zen eta dena beste  
Bang batekin bukatu zen.

DANIEL BALLESTEROS GOÑI  
*3. maila, Berriozarko Institutua*  
DBHko AIPAMEN BEREZIA

## Mikroipuina

Mikroipuina? Zelulak neurtzeko unitatea, mikrometroa. Mikrometro bateko ipuina? Zelulak neurtzeko tresna, mikroskopia. Mikroskopia batekin irakurtzeko ipuina? 0,001 milimetrotako ipuina! Seguru dela ipuina? 0,001 milimetrotan ehun hitz? Hitz bakoitzaren tamaina 0,00001 milimetro? Hau buru nahastea horrelako ipuin bat idatzi behar izatea, ezinezkoa! Mikrometro mikroskopiaarekin irakurtzekoa. Gustatu al zaizu nire mikroipuina? Ez baduzu ulertu, har ezazu mikroskopia eta irakur ezazu nire benetako mikroipuina! Pentsatzen dut horrelako mikroipuin bat idazterakoan poto egiten ahal dela, ez direla bertsolaritzako arauak bete behar, bestela... galduta nago...! Aix mikroipuinak... Buru nahaste ederrak ematen dituzten ipuinak!!!

IDOIA IRAZOKI BENGOETXEA  
*2. maila, Berako Toki Ona Institutua*  
DBHko AIPAMEN BEREZIA

## Non da kapela?

Haizeak indartsu jotzen zuen. Bat-batean, emakume baten kapela airean ikusi zuten bi hurrek, zilipurdika zihoan kalean zehar. Katu batek ikusi, eta atzetik korrika joan zitzaion, orduan, txakur bat bere atzetik korrika hasi zen, mutilak txakurrari jarraitu zion, neskak nebari, amak alabari, senarrak emazteari eta kapela galdu zuen emakumeak gizonari. Kapela, berriz, putzu batetara erori zen, handik hegaldatu eta hesi batean gelditu zen, katua hura harrapatzera joan zen baina buru gainerra erori, eta itsu utzi zuen. Txakurrak kendu egin zion eta mutilari eman, mutilak arrebari, alabak amari, emazteak senarrari eta senarrak emakumeari itzuli zion.

LEIZE LOS ARCOS GARIJO  
*2. maila, Iruñeko San Fermin Ikastola*  
DBHko AIPAMEN BEREZIA

## Zalantzatia

Bazen behin, herri txiki batean bizi zen ume bat. Eneko zuen izena eta beti zalantzak zituen. Gozoki bat aukeratu behar zuenean, ez zekien laranjazkoa edo limoizkoa nahi zuen, eta azkenean ez zen bakar batekin ere gertzen. Unibertsitatera joateko momentua iritsi zitzaionean, ez zekien medikua edo historialaria izan nahi zuen, eta azkenean taxi gidari bezala bukatu zuen lanean. Laurogeita bederatzirte zituenean, heriotza joan zen bere etxera, eta esan zion: «Hartu jertse bat eta nirekin etorri». Gaur egun, Enekoren herrian ez da inor gehiago hil, heriotza oraindik itxoiten ari delako Enekok erabaki dezan ea ze jertse hartuko duen.

MAIALEN ZABALZA ZUDAIRE  
*2. maila, Iruñeko San Fermin Ikastola*  
DBHko AIPAMEN BEREZIA

## Zer izango zara handia zarenean?

Ni tren gidaria izango naiz edo jendea salbatzen duen suhiltzaile bat. Detektibea izatea ere, ondo legoke, lupa handia duten horietarikoa. Esploratzaile bat izatea gustuko litzaidake, lehoien kontra borrokatzeko eta animalien hizkuntza ikasteko. Tope guai izango zen astronauta izatea, horrela, benetako izar bat oparituko niokeelako amari. Guapada bat izango zen, telebistan agertzen den abeslari famatu bat izatea, kontzertuen amaieran gitarra apurtzen duen horietarikoa. Eta super guapada bat izango zen pelikula baten gidoi bat eginez Oskar bat irabaztea.


Azkenean, idazle egin nintzen, mikro-ipuin idazle.

UXUE PEREZ LITAGO

*1. maila, Fontellasko Argia ikastola*

DBHko AIPAMEN BEREZIA

# AURKIBIDEA





Hitzaurrea .....	3
------------------	---

## 2010ko Mikro-ipuin lehiaketa

ASISKO URMENETA.....	7
----------------------	---

### Koilara hiltzailea

AARON ARBIZU ALBERTO.....	8
---------------------------	---

### Harri kozkorra

OIHANA AMORÓS ABREGO.....	9
---------------------------	---

### Dibertibasura

PAULO RAMOS ZUMALDE.....	10
--------------------------	----

### Erlojuan

MIKEL CASTILLO GARZIARENA.....	11
--------------------------------	----

### Poltsikoetan

AMAIA SANCHEZ.....	12
--------------------	----

### Ane gaixoa

IRANTZU GARZARON RUPEREZ.....	13
-------------------------------	----

### Ondo lo egin

NAHIA MITXELENA VAQUERO.....	14
------------------------------	----

### Kolpeen mina bihotzean

BIDANE LEON BALENTZIA.....	15
----------------------------	----

## Aipamen bereziak

Nire etxeko atea	
OLATZ RUIZ DE GALARRETA GOMEZ.....	19
Ekuador	
CRISTINA AÑAZCO CARRIÓN. ....	20
«S»	
MUNIA EL MARHOUM IRURETAGOiena.....	21
Bang!!	
DANIEL BALLESTEROS GOÑI. ....	22
Mikroipuina	
IDOIA IRAZOKI BENGOTXEA. ....	23
Non da kapela?	
LEIZE LOS ARCOS GARIJO.....	24
Zalantzatia	
MAIALEN ZABALZA ZUDAIRE. ....	25
Zer izango zara handia zarenean?	
UXUE PEREZ LITAGO. ....	26

# Mikro-ipuinak 2010

liburuaren inprimaketa 2011ko  
maiatzean burutu zen  
Ona Industria Gráfica moldiztegian,  
fotokonposiziorako  
A Garamond, Myriad eta Birch  
letra motak erabiliz.  
Lehenbiziko edizio hau  
bi mila alekoa  
izan da.



# Mikro-ipu in lehiaketa



Irakurle hori: mikro-liburu honetan hamazazpi testu biltzen dira. Lehen zortziak sarituak izan dira Euskal Kultur Elkargoak eta Pamiela argitaletxeak antolatu duten V. Mikro-ipu in lehiaketan. Horien ondotik, epai-mahaikideek aukeraturiko beste zortzi aipamen bereziak aurkitu dituzu, partaidetzaren kalitatearen eta aniztasunaren lagin izan nahi dutenak. Haiekin batera, Asisko Urmenetaren mikro-ipu in bat ere badago, irudi eta guzti.

